

Kontuan hartzekoak:

Aitorpenak aurkezteko epea:

2008ko apirilaren 18tik ekainaren 25era.

Hitzordua eskatzeko eta kontsultak egiteko telefonoa:

902 100 040

Interneten argibideak:


www.gipuzkoa.net/ogasuna

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO AUKERAK ZUMAIAN

Kutxa	943012500
Ricardo J. Azcue	943862651
Rural Kutxa	943865628
Unanue Aholkulariak	943860960
Zumai Aholkularitza	943862624



Zumaiako Udala



2007ko errenta aitorpena egiteko garaia iritsi da.
Zumaiako Udaleko Euskara Zerbitzuak
euskaraz egitera gonbidatu nahi zaitu.
Izan ere, euskaraz egiten dutenak gero eta gehiago izan arren,
askoz ere gehiago dira gaztelaniaz egiten dutenak.

*euskara
txanpan*



ZUMAIAKO DATUAK

	2007an	2006an
Aitorpena egiten duten herritarrak	4.560 inguru	4.250 inguru
Foru Ogasunarekin harremanak euskaraz izan daitezela eskatu duten zumaiarrak	543 (% 11,9)	276 (% 6,5)

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA

Zergadun batzuei etxera bidaliko zaizue proposamena, Foru Ogasunak eskura daukan informazioan oinarritutakoa. Proposamena ontzat ematen baduzu, bi bide daude onartzeko: telefonoz edota Internet bidez.

Euskaraz: proposamena eta eskutitza ele bietan jasoko duzu. Telefonoa erabiliz gero, euskaraz hitz egin eta Ogasuneko langileak euskaraz beteko du aitorpena; gainera, aurrerantzean Foru Ogasunarekin dituzun harremanak euskaraz izan daitezzen nahi ote duzun galdetuko dizute. Internetez eginez gero, euskarazko aukera erabil dezakezu.

MEKANIZATUA

Foru Ogasuneko bulegoetan egiten da; zumaiarrok Azpeitian edo Donostian egin dezakegu. Horretarako hitzordua eskatu behar da, telefonoz edo Internetez.

Euskaraz: telefonoak euskara aukeratzeko bidea emango dizu, baita Interneteko atariak ere. Bulegoan euskaraz hitz egiten baduzu, langileak euskaraz beteko du zure aitorpena; hala ere, ziur egoteko, adieraz iezaiozu aitorpena euskaraz egiteko borondatea. Bukatzeko, aurrerantzean Foru Ogasunarekin dituzun harremanak euskaraz izan daitezzen nahi ote duzun galdetuko dizute.

Errenta aitorpena euskaraz egiteko dauden aukeren berri eman nahi dizugu, modalitate bakoitzean urrats garrantzitsuak egin daitezkeelako euskara gehiago erabiltzeko.

Argibide gehiago:

Euskara Zerbitzua
943865025

euskaratxanpan@zumaiakoudala.net

euskaratxanpan

TELEMATIKOA

Baimenduta dauden erabiltzaileek har dezakete bide hau, eta batez ere finantza-erakundeek eta artezkaritza edo aholkularitza zerbitzuek erabiltzen dute. Gune horietara gure sarrerren, gastuen, kenkariaren eta abarren frogagiriak eraman eta bertako langileak arduratzen dira aitorpena egin eta bidaltzeaz. Bezero jakin batzuentzako zerbitzua izan ohi da.

Euskaraz: eskuorri honen bukaeran daukazu Zumaian non egin ahal izango duzun zure aitorpena euskaraz. Espresuki adierazi beharko duzu bertan euskaraz egiteko borondatea.

NORK BERE BIDETIK

Inprimakia nahiz CD-Roma erosita edota Internet bidez, nork bere aitorpena ere egin dezake. Estankoetan, Ogasuneko bulegoetan edo Interneten eskura daitezke euskarriak.

Euskaraz: Inprimakiak ele bietan daudenez, zeuk erabaki ahal izango duzu zein hizkuntza erabili.

